



LIDIA BIURRUN ARETOA

Ezkontza zibilak



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala



KOKAPENA

"Lidia Biurrun" Ezkontza Zibilen Aretoa, Iruñeko Ziadadelaren barruan.

OSPAKIZUNA

Ezkongaiek zehaztuko dute ekitaldia gaztelaniaz, euskaraz edo elebitan izanen den. Atal ofiziala Kode Zibilean ezkontza-batasuna, bikotearen adostasunak eta ezkontza-akten sinadura arautzen dituzten artikulua irakurtzean datza. Zeremonia pertsonalizatzeko elementuak txertatu daitezke: eraztun trukea, ezkontza-horniak, girozke-musika eta irakurketak edo parte-hartzeak, betiere bertaratuen kopuruaren arabera. 25 minutuko iraupena izanen du zeremonia hasteko aurreikusitako ordutik hasita.

EKITALDIBURUA

Alkatea izanen da ekitaldiko buru, edo hark eskuordetzen duen zinegotzia. Ezkongaiek beren gogokoena nor den adierazi dezakete eta, aukeratutako pertsona ezin bada joan, bere udal-taldeak beste pertsona bat izendatuko du bere ordeiz.

LOREAK

Ezkontza Zibilen Aretoa zeremonia guztietan berdinak diren lorez apainduta dago.



MUSIKA

Aretoan grabatutako girozke-musika dago, baina bikoteak pertsonalizatu dezake bere proposamen akustikoa ekarri (USBan grabatuta edo zuzeneko).

Aretoaren kanpoaldean dantza-taldeen ikuskizunak aurreikusi daitezke, betiere aurreko edo ondorengo ezkontzak oztopatzen ez badituzte.



BERTARATUAK

Gehienez ere 100 lagun sar daitezke, gehienak eserita. Zutik daudenek espazioa kudeatzen duten udal-langileen kokapen-argibideak jarraitu beharko dituzte. Ekitaldiaz kanpoko pertsonen presentzia onartzen ahalko da, udal-langileei baimena eskatzen badiete eta diskrezioz eta errespetuz jokatzeko badute.



DATU TEKNIKOAK

ORDUTEGIA

Urte osoan zehar.

Ostiraletan:

· 18:30 - 20:00

Larunbatetan:

· 12:00 - 13:30

· Maiatzetik urrira, biak

barne: 18:30 - 20:00

Kanpoan geratuko dira
jaiegunak eta ekitaldi edo
gertakari bereziak dituzten
egunak.

OSPAKIZUNAREN IRAUPENA

Ospakizunak ezin izanen
du 25 minutu baino gehiago
iraun ekitaldia hasteko
aurreikusitako ordutik
aurrera; beraz, puntualtasuna
ezinbestekoa da.

25'

BEHARREZKO AGIRIAK

- Iruñeko Erregistro Zibilean
ezkontza zibilaren
espedientearen hasieraren
jakinarazpena.
- Ezkongaien nortasuna
egiaztatzen duen agiri
ofizialaren fotokopia.
- Lekukoen nortasuna
egiaztatzen duen agiri
ofizialaren fotokopia.
- Udal-tasa ordaindu
izanaren frogagiria.

010

KONTSULTAK

enlancesciviles@pamplona.es

T 948 420 100 / T 010

www.pamplona.es

IRUÑEKO ZIUDADELA

Armada etorbidea, z.g.
31001 Iruña, Nafarroa

Iruñeko Udalaren
sare sozialak



AURRETIK ETA ONDOREN

IBILGAILUZ SARTZEA


Ziudadela barrura sar
daitezke bi ezkongaien
ibilgailuak. Zeremonian
mugikortasun murriztuko
pertsonak parte hartzen
badute, hirugarren ibilgailu
bat onartuko da. Armada
etorbidetik sartu beharko
dira, eta ibilgailuak
Arma Aretoaren atzean
aparkatu.

OSPAKIZUNA

Zeremoniaren ondoren,
irtetean, lore-hostoak edo beste
elementu biodegradagarri
batzuk bota ahal izango dira.
Ezin da arroza, konfeti, suziriak,
petardoak edo antzekoak bota.



- Aretoa
- Aparkalekua
- .. Ibilbidea autoz



Armada etorbidea

